

Aretxabaleta,
1992ko abenduak 3

Aretxagazeta



Lanean ikasi az

• *Bosniarrak
Sean datoz*

• *Afizioak:
eskulanak*

• *Atxabaltartua:
Terence Martin*



Azaroaren 16tik 22ra "drogomenpekotasunaren prebentziorako europear astea" ospatu zen. Hau dela eta ekintza des-

Drogomenpekotasuneko astean partehartzaile ugari

berdinak antolatu ziren eskola mailan.

Eskoletan egin zen proposamena hau izan zen:

Eskolaurrean eta haserako zikloan: "osasuna" gai moduan jarrira marrazkiak egitea. Erdi zikloan: komikien lehiaketa, "zer da osasuna?" gaiarekin eta goi zikloan: sloganen lehiaketa, "osasuna" gai moduan hartuta.

Aste horretan, jasotako lan guztiekin Euskal Txokoan erakusketa bat izan zen.

Aste hori amaituta, lehenengo diplomak eman zitzairen kanpaina horrentako partehartzaile denei. Diploma hauekin,

euren partehartzeagatik eskerrak eman gura izan genien. Eskolaurreko eta haserako zikloko oparitxo bat ere eman zitzairen. Eta azkenik, komiki eta esloganen artean hiru lan onenak aukeratu ziren eta irabazle bakoitzari ikastetxeka, opari bat eman zitzairen.

Kanpaina honetako irabazleak hauek izan ziren:

Komikien atalean:

Kurtzebarri Eskolan: gai desberdinekin: Montserrat Pérez eta Estibaliz Luermo. beste gai batekin Miren Arietaleanizbeazkoa eta beste batekin Aiora Filar-mendi eta Janise Davila.

Almen Ikastolan: Du-

nixe Royo, Maite Teixeida, Ainoa calleja eta Oiana Toledo. Beste gai batekin Josu Martínez, Leire López, Joana Romero eta Alain Elorza. Beste batekin Mirari Arando, Kepa Azpitarte, Jon Mugica eta Itziar Uranga.

Esloganen atalean:

Kurtzebarri Eskolan: gai desberdinekin Nerian Pérez, Ester Cabero eta Enma Bote.

Almen Ikastolan: Agurne Juladain, Ione Olalde eta Asier Heriz.

kanpaina honetako partizipazioa positiboa izan da eta oso pozik gaude. Eskualdeko ikastetxe denek hartu dute parte.

Eskualde guztiko ikastetxe-tako ikasle gehienek hartu dute parte.

Mirian Beltran De Heredia Udaletxeko drogomenpekotasuneko teknikaria.

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Iinoa: 79 01 05. 151 postakubxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Goretti Ayastuy **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Ze iritzi daukazu Atzeratuen Aldeko jaieldiei buruz?



Maia Etxeberria
(Langilea)

Jaialdi hauek oso ondo datoz herrian egiten diren zenbait aktibitate erakusten direlako. Bestalde daukan helburua, hau da, nolabait atzeratuen alde dirua ateratzea ekintza ezin hobea da. Beraz, fenomenoa iruditzen zait.




Luis Mari Elkorobarrutia
(Langilea)

Oso ondo dago. Laguntza aldetik eta gainera esperientzia moduan balio duelako partehartzaile guztiendako. Publiko aurrean joteko karakter bat izan dezaten, batez ere instrumentistentzat. Alde bietatik ondo dago.



Maria Jesus Ortiz De Guzmán
(Langilea)

Oso pozik etorten naiz urtero eta merezidun etorteak. Laguntza hori behar dute atzeratuek eta gurasoen aldetik ere poztasuna ikusten da. Gainera integratuta daude atzeratuak beste umeekin eta beste bat gehiago da. Horrela denok gaude pozik.



Jabier Ayastuy
(Langilea)

Oso ondo iruditzen zait. Lagundu egin behar zaie atzeratuei eta ni, behinbat, beti nago laguntzeko prest. Horrela urtero jaialdi hauen bitartez lagunduz aurrera urteten duten.

KARTAK

Jaialdiak

Azaroaren 28an Atzeratuen Aldeko urteroko jaialdia izan zen Zaraia zineman.

Jaialdia ikustera joan zirenen artean honako komentario hau entzuten zen: ez dauka zentzurik ordu bete lehenago parrokiaren beste jaialdi bat izatea, Txanpa akordeoi orkestraren kontzertua.

Guregana etorri ziren

denei jaialdien antolakuntzaren prozesu osoa azaldu genien:

1- Atzeratuen Aldeko Elkartek Udaleko kultura Batzordeari irailan jakinarazi zion gure jaialdiak azaroaren 14ean eta 28an izango zitrela.

2- Azaroaren 25ean jakin genuen akordeoi orkestraren kontzertua

izango zela parrokiaren.

3- Azaroaren 26an Udalarekin kontaktuan jarri ginen gure kezkek azaltzeko asmoz.

4- Eurek esan zigutenez kontzertua 7,30etako meza bukatuta gero hasiko zen eta orduerdiko iraupena izango zuen. Baina jaialdia 8ak eta 35 minututan hasi zen eta 10etan

bukatu. Gure jaialdia 9,30etan hasi zen.

5- Jaialdi bi ordu beteren barruan izatea begetan gauza arraroa da, guk ere ez dugu ezer ulertzen.

6- Ez digute mesede haundirik egin, baina gure jaialdiak antolatzen jarraituko dugu.

Atzeratuen Aldeko Elkartea



5ean bosniarrak Leintz Bailerara

Azaroaren 25ean goizeko 11etan, San Biatorreko Harrera Etxean prentsa aurreko bat izan zen. Bertan komitekoak, Udaletako partaideak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren eta aparte komunikabeak ere bai. Prentsa aurrekoa aurkezpen txiki batekin hasi zen eta gero bosniar hauek erabiliko duten instalazioen bisitak jarraitu zion.

Gero Gemma Zabaletak, Gipuzkoako Foru Alldundiko Giza zerbitzuetarako diputatuak, Yugoslabia ohirako laguntzen filosofia azaldu zuen. Hemen emango zaien laguntzari buruz eta baita beste laguntza mota desberdinei buruz jardun zuen. Manuk, San Biatorreko frailea danak, hemen emango zaien laguntza konkretuari buruz azalpen labor bat egin zuen.

Kazetarien galderei erantzunez, puntu hauek konkretatu daitezke: familien etorrera 5ean izango dala, 20 pertsona izango direla Gipuzkoan, Eskoriatzan bertan, eta aparte Gasteizeko eta Mundakako proiektuak ere onartu dituztela. Familia horien estantzia boluntarioen aportazioarekin eta komertzianteenarekin eramango da aurrera. Hauen egonaldia ahal den eta normalena egitea espero da eta gero denborarekin, herrietan integratzea.

Edozeinek bere laguntza ekonomikoa eman gura badu, hona hemen dirua sartu ahal izateko kontu korrante batzuk:

C.L.P: 044000918/0
Kutxa: 10204/96
Banco Hispano
Americano: 21245/9



Dionisio Aranzadi Jauna

Don Jose Maria Arizmendiarrietaren omenez

Abenduaren 3an Gizabide Fundazioak antolatuta, Don Jose Maria Arizmendiarrietaren omenezko ekintza akademikoa izan da.

Ekitaldia Arrasateko Eskola Politeknikoan izan da arratsaldeko 6.30etan.

Aurten Dionisio Aranzadi jauna izan da bertan, Deustuko errektore-ohia eta gauregun, aitatutako unibertsitateak Donostian duen egoitzako errektoreordea.

Aranzadi jaunak honako gai honen gainean berba egingo du: "Esperientzia kooperatiboa: helburu eta berrikuntza".


Dionisio jaunak ondo ezagutzen du kooperati-

bagintza. Bere irakaslaria edo tesia horretan oinarrituta egin zuen. Bereak dira kooperatibei buruz egindako liburu eta artikulu asko.

Abenduaren 3an Eskola Profesionalean egingo den ekitaldi akademikoan zehar, literatura lehiaketaren epaimahiak hartutako erabakia jakinaraziko da.

Gai hau landu dute lehiaketan irakaskuntza ertaineko neska-mutilek: "Garapena eta inguru giroa Euskal Herrian".

Iniziatiba interesgarria izan daiteke, eskoletako gazteek inguruko errealitatea gertutik ezabatu dezaten. Etorkizunean baliagarri gertatuko zaizkie gaztetan egingandako azterketak.



Egunkaria-ren tonbola eta Sehaska-ren egutegiak

Igaz hasitako bideari jarraituaz aurten ere, EGUNKARIA - ren tonbola martxan dagoela jakinarazten digu Beinkek.

Sari ugari eta inportanteak dira aurten banatuko direnak; Kamisetak, dirua, afariak, automobila...

Zortea tentatu gura izan ezkerro, honako leku hauetan erosi daitezke boltoak:

Anduaga estankoan.
Arlutz tabernan.
Zaraia tabernan.
Express tabernan.
Gaztetxean.

Horrez gain, Iparraldeko SEHASKA - ren egutegiak ere salgai daudela jakinarazten da. 300 pezetatatan izango dira, hauek Beinken bertan eta Anduaga estankoan aurkituko dituzue. Bestalde aurten ere abenduaren 19an eta 20an Liburu Azoka izango da Durana Kanean. Hemen ere eskuratu ahal izango dira egutegi horiek eta baita salgai izango diren euskal liburu eta diskak ere. Beraz, Gabonak direla eta erregaluren bat erosi gura baduzue, liburuak edo diskak erregalu apro-

Eskolarteko IV. literatur lehiaketa

Udalak antolatutako lehiaketa honetan, Atxabaltan jaio, bizi edo ikasten duen edonork hartu dezake parte. Lan guztiak argitara bakoak eta euskearaz izan beharko dute. Pertsona berak ezin dezake lan bat besterik aurkeztu. Bi sailetan banatuko da lehiaketa eta sail bakoitzean edadearen arabera lau maila bereiztuko dira. Gaia librea izango da. 3, 4 mailatakoak eta 5, 6 mailatakoak ezik, lan guztiak makinaz idatzita bidaliko dira, folio neurrian, bi espaziotan eta lan bakoitzeko kopia bi. Egilearen datu guztiak, estalki batean entregatuko dira, bertan lanaren izenburua adierazi beharko da. Beste estalki batean, lana bera, izenburuaz eta ezizenaz. Lanak " eskolarteko IV. Literatur Lehiaketa " izenburuaz Atxabaltako Euskera zerbitzura bidali beharko dira. Epea abenduaren 22an bukatuko da eta sariak 1993ko urtarilaren 5ean banatuko dira.

• Eguakotxean Almenen San Frantzisko eguna ospatuko da. Eguna, bera eguenean da, baina eguakotxera pasatu dute. Egun horretan ekintza desberdinak izango dira goiz osoan zehar. Gero arratsaldez jai izango dute.

• Lorito bat galdu da Errekarren auzoan. Ez daki egan egiten, beraz norbaitek jaso badu deitu telefono honetara: 79 46 19.

MZ MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi, 13 - 1. A
Tnoa: 79 71 55



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**

ARLUTZ
taberna

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34



Atxabaltako Musika Bandari omenaldia

Joan den domekan, azaroaren 29an, Atxabaltako Bandari omenaldi bat eskaini zitzaion. Lehenengo, Bandak Euskal Txokoan ensaiatu zuen. Banda Oñatiko, Bergarako, Eskoriatzako eta Atxabaltako jendeak osatuta zegoen. 12etan alkate-ordeak eta alkateak diskurtso bana bota zuten, eskerrak eman zizkien herriko lehengo bandan parte hartu zuten denei. Gero oroigarritzat, plaka bana eman zitzaion eta Demetriori Atxabaltako eskuduaren insignia bat.

Horren ostean pasakaile bat egin zuten bandakoek Atxabaltako kaleetatik, jende ugari urten zuen ikustera eta beste asko atzetik jarraika joan zitzaion. Pasakailea bukatuta gero luntxaizan zuten Uratz-alde elkar-tean.

Ordu batetan, Dura-

na Klean kontzertu eder bat eskaini zuten. Bertan aspaldiko kontuak gogoratuz jende asko bildu zen. Ikusleen artean berriro errepikatu beharko litzatekeela entzuten zen, oso gustora hartu zuen jendeak omenaldia. Bazkaltzera ordu biak aldera joan ziren Urbaltz Elkartera.

Arratsaldean berriro pasakailea jo zuten eta oraingoan ere jende asko izan zen ikusten. Ikusle gehiena heldua zela esan beharra dago. Gazte asko mendira joan ohi da eguraldi onarekin eta gainera helduek bizi izan zuten lenauko Banda eta interes gehiagorekin hartu zuten Bandaren berragertzen hau.

Jendearen eskaerei erantzunez hurrengoan ere beste saio bat egin beharko du Atxabaltako Banda honek, hau gustora hartua izan zen eta.

Hirigintza sailetik

Atxabaltako Kanposantuko obrak hasita daude. 272 nitxo egiteko asmoa dago, baina lehenengo fasean 60 egingo dira. Obrek 3 edo 4 hilabete iraungo dute. Zabalkuntzan Kanposatu sarrerako harresien alineazioa egingo da. Sarrera bi izango dira, oraingoa eta gero beste bat ekialdean egingo dena. Sarrera hori, obra berrian egingo diren enterramentuetarako erabiliko da eta sarreraren aurrean aparkaleku bat izango da.

Zabalkuntzak klausuro errektangularraren itxura izango du eta nitxoak gorutza launakako zutabetan joango dira. Erdian lurpeko enterramentuak egiteko lekua utziko da eta baita jardina eta pasabideetarako ere. Konponketa horietan aurreko fatxada eta autopsi gela barrizuko dira. Harresien drenaje on bat lortuko da, sarritan haresia inguratzen duten panteoietan ura sartzen delako. Azkenik harresiak "albardilla" eginez bukatzea espero da, eurria dela eta nahiko txarto daude eta.

19. sektorea, Trenbide eta Bariantearen arteko paseoa, Santa Kurtzetik Kanposanturarte-koa. Egokitze lanak egingo dira, abandonatuta dagoen zonalde

horretako biztanleak lasaiago ibili daitezten. Egingo diren lanak hauek izango dira: lurra eska-badorekin gertatzea, bedarra erein eta zuhaitzak sartzea.

Santa Kurtz kale ondoko kaleetan pabimentazioko obrak hasiko dira eta bedar garbitzea egingo da. Bertan bardingetarako kapa desberdinak botako dira.

Herriko Plazako eskaileretako bat hemengo harearriaz barriztua izan da eta bestea konpondu egin da aurrekoarena aprobetxatuz. Eskailera bietan barandatu ipiniko da, hori oraindik egin barik dago.

Traba urbanistikoak kentzen hasita daude Atxabaltako kaleetan. Azerak behera jaitziko dira, horrela elbarrituek kaleetan ibiltzeko erreztasun gehiago izan dezaten eta dauzkaten oztopoak gutxitu daitezten.

Durana 31.eko eraikuntza barriztu egingo da, jabe desberdinekin akordio batera helduta gero. Esan behar da Udalak hemen propietate bat duela. Gainaldea jasoko da, horrela barriztu eta 3. pisua bizitzeko moduan geratuko da.

Kultur Batzordeak antolatzen dituen ikastaroak aspaldikoak ditugu. Ikastaro horiek Piedad Romanek ematen ditu, beretako eskulanak egitea afizioa da; eta afizio horren gainean gehiago jakin guran berarekin izan gara. Piedadek eskulanean munduan 17 bat urte daroa.



Eskulanak egiten ikasten eta irakasten

• **Noiztik daukazu afizio hori?**

• 17 bat urte daroat, lehenengo ikastaroetan ikasten hasi eta gero espezializatuaz joan nintzen jendeari erakusteko. Hemen 7 bat urte nabil ikastaroak ematen eta Valladoliden ere ematen eta hartzen ditut.

• **Zein da zure espezialitatea?**

• Eskulan guztiak egiten ditut: Papira, kristala, tazarea, igeltoa eta abar. Gauza barriak agertzen dira beti eta nik ikasi egiten ditut, barrizatuaz joateko. Pintura eta buztinezko lanik ez dut egin, uste dut pintura ez dela niretako.

• **Zenbat denbora**

behar da ikasteko?

• Afizioa izan behar da eta gustatu egin behar da. Orduan teknika ikasteko 3 hilabete behar izaten dira, baina gero urteten duten gauza barri guztiak ere ikasi egin behar dira.

• **Nor izan zen zure maisua?**

• Lehenengo Valladoliden antolatu zen ikastaro batean egon nintzen ikasten eta gero partikularrekin ere ikasi izan dut. Orain ere emakume batengana joaten naiz Valladoliden eta astean 4 orduz ikasten dut berarekin. Nik ere ikasi beharra daukat, ezin gara estankatu, gauza barriak ikasi behar dira.

• **Gatxa da?**

• Gustatu ezker ez da gatxa. Jende askok esaten du ezingo duela egin, baina horretara jarri arte ezin da jakin ahal izango duzun edo ez. Batzuek dago samurragoa da, horretarako esku hobeak dutelako.

• **Noiz disfrutatzen duzu gehien?**

• Egiten nabilen birtartean. egiten nabilela asko disfrutatzen dut, bertan kontzentratuta egoten naiz eta. Bukatuta dagoenean baino gehiago disfrutatzen dut.

• **Zenbat denbora dedikatzen diozu?**

• Ikasten, astean 4 ordu. Baina gero denbora librean hasten naizenean, ahaztu egiten zait

zertan nabilen eta orduak konturatu barik pasetan zaizkit. Eta ez niri bakarrik, hemen ikasten dabiltzanek ere gauza bera esaten dute. Askotan euren senarrek haserre egiten diete ordu asko pasetan dutelako horretan.

• **Egin duzunetik ze egin duzu gustoren?**

• Beti egiten nabilen azkena izaten dut gustokoen. Hasi nintzeneko lana beharbada lehena zelako edo, oso ilusionatuta egin nuen. Lehenengo lana papire izan zen eta lan asko zuelako edo rustikoa zelako gogo handiaz egin nuen.

• **Zer esaten dizute etxean?**

• Nire alabek asko animetan naute, horrela entrenituta egoten naiz eta.

• **Badauka sekretorik?**

• Ez, uste dut ez duela inongo sekretorik. Nik ikasi dudana irakasten dut.

• **Jarraitailerik izango duzu lan honetan?**

• Nire alabek badaukate horretarako eskua, baina bakoitzak bere lana dauka eta ez dut uste jarraituko dutenik.

• **Badaukazu anekdotarik?**

• Behin 5 bilobekin gelditu nintzen eta denak estainoa egiten jarri nintzen eta orain enmarkatuta daukate lan horreik.

Terence Martin

New Yorketik Atxabaltara

- Non jαιο zinen?
- Worlesterren, Massachusetts-eko estatuan.

- Noiz etorri zinen Atxabaltara?

- Lehenengo aldiz orain dela urte bi, aste beterako, nire estudioa egiteko lekua esploratzen. 2. aldiz urtarrilean, 3 hilabeterako eta azkeneko aldiz abuztuan.

- Ze arrazoirengatik etorri zinen?

- Ni ekonomista naiz eta unibertsitateko doktoradutza egiten nabil, kooperatibetan oinarrituta. Hemendik kanpo interes handia dago kooperatibismoaz. Hemengo jendeak, barriz, ohituta dagoelako edo, interes gutxiago dauka. Baina hau normala da gauza naturalzat hartzen delako.

- Zeintzuk izan ziren zure lehenengo lanak?

- Batez ere lanekoak, egun osoa egiten dut lanean eta. Gainera Atxabaltako jendea badirudi betidaniko lagunekin eta familiarekin bizitzen ohituta dagoela. Gatxa egiten zait lagun barriak egitea.

- Zein izan zen zure



lehenengo inpresioa?

- 9 milioi biztanleko hiri batetik 6000 biztanleko herri batera etortea oso gogorra da. Hemen gaueko 11etan zegoen isiltasunak ikaragarri harritu ninduen.

- Ze kostatu zitzaizun gehien?

- Integratzea. Hizkuntza arazoetatik eta famili arteko erlazioa dagoelako. Adibidez pelukeria ulea zela moztu gura nuen azaltzea kostatu zitzaidan. Sarrtan

ume sentitzen naiz.

- Ze inpresio egin dizu euskarak?

- Euskeraren inguruan interes handia dagoela ikusi dut. Niri ere ikasteko esaten didate, oraindik erdara guztiz menderatzen ez dudanean.

- Herriminik bai?

- Zerbait bai. Oso interesgarria egin zitzaidan kanpaina elektoralak helemendik ikustea. Hemen jendea gustora dago Klintonekin, baina gure

artean duda gehiago dauzkagu.

- Ze gustatu zaizu Atxabaltatik gehien?

- Lekua oso polita iruditzen zait, oso lasaia eta isila. Jendea ere oso esku zabala da eta oso ondo hartu naute.

- Eta gutxien?

- Atzerritarra izatearen arazoa. Munduan leku gutxi daude hemen baino atzerritarrago sentitu daitekeena.

- Ze alde ikusten duzu zeure herria eta Atxabaltaren artean?


- Hemen jendea familia eta kuadriletan integratuta dago. Gure artean askoz banatutago gaude.

- Ohituren desberdintasunak?

- Hemengo jendea mendira asko joateak harritu ninduen eta domeka arratsaldeetan familiak tabernetan ikustek ere bai.

- Badaukazu anekdotarik?

- Behin ulea ebaki gura nuen eta bati pelukeria non zegoen galdetu nion. Honek zera esan zidan: "Zuk egunkaria erosten duzun denda ondoan dago bat". Ez nintzen inoiz berarekin denda horretan elkartu eta ez dakit zela enteratu zen hor erosten nuela egunkaria. Ikusten da hemen denek dakitela besteen bizitzaren berri, elkar ezagutzen dutelako.



Piraguismo Taldea

Piraguismo taldea hobeto ezagutzeko, bertako partaidea den Jon Antxiarekin gai horretaz jarduteko aukera izan dugu.

• **Zela sortu zen Piraguismo Taldea?**

• Diputazioak ikastaroak antolatzen zituen urtero Urkulun. Ikastaro horreitan ibilitako jendeak taldea sortzeko ideia euki zuen, nahiko kostatu zitzaigun, baina azkenean lortu zen. Taldeak 3 bat urte daroa funtzionatzen.

• **Zuek non ikasi duzue, ikastaro horreitan?**

• Nik lehenengo Landan egin ziren ikastaro batzuetan ibili nintzen. Gero hemen Urkulun, taldearekin ibiliz eta ibiliz ikasi egin nuen.

• **Zenbat zaudete**

taldean?

• Lanean ibiltzen garenok lau gara: Josu, Joseba, Jurgi eta ni. Federatuak 40 bat gara, baina ikastaroak eman dituztenak eta materialaren arduradunak gu laurok gara.

• **Eta materiala?**

• 12 bat piragua daukagu eta horreitatik 4 barriak dira. Zaharrak pantanoan ibiltzeko prestatuta daude eta horretarako onak dira, baina ez erretarako. Barriak barriz, askoz hobekak dira, errekak jeisteko eta.

• **Zuek egiten duzue, na ze da, afizioa edo konpetiziotarako?**

• Konpetiziorako ez. Guk gura duguna erreka jeistea da, baina hori askoz gabaxgoa eta arriskutsuagoa da. Errekan ibiltzeko

ondo jakin behar da eta maneju ona eduki. Maneju eta teknika hori lorzteko lehenengo pantanoan ibili beharra dago teknika ondo ikasteko.

• **Noiz ibiltzen zarete?**

• Urkulun udan ibili daiteke bakarrik, orduan ia egunero joaten gara, baina denbora gutxi da. Uda-berria da errekak jeisteko garairik onena, izoztea dela eta ur gehiago dagoelako.

• **Pantanotik erreketara desberdintasun handia dago?**

• Bai noski. Pantanoa oso lasaia da. Erreketarako eskimoteak egiten ikastea oso garrantzitsua da. Eskimoteak egitea piraguekin buelta ematen jakitea da eta hau beharrezkoa da errekak jeisteko.

• **Badago horretarako afizorik Atxabaltan?**

• Federatu asko dago, baina ibili, beti berberok ibiltzen gara. Baina uste dut gero eta jende gehiago hasten dela, ikastaroe-tan ume asko apuntetan da.

• **Ze behar da piraguismoa egiteko?**

• Teknika haundia. Pantanoan ibiltzeko ez da asko behar, baina bai errekak jeisteko. Errekak jeisteko bi mota daude: bata ur haundiko erreketan eta bestea alpina deritzona. Alpinoan piraguak bertikal doaz erreketan zehar, hau askoz arriskutsuago da.

• **Joan den astean hasi ziren Kirol Etxean sauna barria egiten. Aurrekoa txikia zela eta, nahiko keja zeuden, oso jende gutxi sartzen zelako bertan.**

• **U.D.A ko taldeek aurreko astean, era gutzietako emaitzak lortu zituzten: Preferentekoak husnako emaitzak bueltatu ziren Bergaratik. Errejonalak 1 eta 4 galdu zuen Hamaika Bat taldearen aurka. Eta neskek 3na berdindu zuten Dunboa taldearen aurka. Neskek asteburu honetan Arrasatekoen aurka jokatu dute, Anexoan, denboraldiko lehen derbia izango dena.**



Aurten 1992, 25 urte betetzen dira Atxabaltatik pasatzen zen tren desagertu zenetik, azken bidaia egin zuenetik. Nonbait badaude azken bidaia horren argazkiak. (Atxabaltatik - Gasteiza, geltoki guztien argazkiak

). 1967ko abenduaren 31 zen. Horren inguruan gaurko argazki hau.

Gure oroitzapenekin bat datorren sepia koloredun argazkia. Mutiko denborako tren (ea zenbat bagoi dakarren?), Laminazioko burdin

gori-goriak. Bertako langileen gorputz izerdit-suak (a ze bero!).

Iturrigorriko etengabeko jario mantsu eta isila, eta bertan beti egarriaren lekuko zegoen ur morkoa.

Gazteek amets egi-

ten dute, zaharrek gogoratu.

Denboraren gurpila.

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

• Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

• Asmetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

• **Zelan bukatu zen txistea?**

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Uztailaren 10a, San Kristobal))



Aurreko lehiaketaren irabazlea ASIER BENGEOA izan da. Zorionak!

Erantzuna:

- Izen-abizenak:
- Helbidea:
- Tfnoa:

Estreno ugari hamabost egunean



J.J. Aretxaga

Krisisa modan dago. Eta aurten itxura denez, Atxabaltako Ziklo Kross probari heldu zaio krisisa. **Manolo Zubilaga** lanpetuta dabil itxuria, eta berak failatu ezker, akabo. Kontua da aurten ez dela proba internazionalik egingo. Herrikook hartu beharko dugu parte. Krisis haundirik erakusten ez dutenak Soziedade Gastronomikoak dira. Orain ere **Eguzki Alde** elkartean 3 miloiko obrak doaz. Badago dirua. Hartuko lukete diru hori eskoletan kurtsu akaberako bidaia egiteko dirua ataraten dabilzan neska-mutikoek. Sistema barri bat asmatu dute dirua atarateko: Polboroiak egin eta saldu. Sistema siku samarra.

Badaukagu banda barria, **Barandiaranekin** (denak "ba"-kin hasten dira). Bere lehenengo pasakailea zuzendu zuen, korbata eta guzti: **Pedro Mendieta** alkate jauna ere


korbatarekin zegoen. Estreno inportantea benetan. Esan ziguten, domeka eguerdian, Kurtzebarri maldatik ere bandaren soinua entzuten zela. **Ederlan** geldik zegoelako, noski. Aretxabaleta aurrera doa musika mailan. Banda barria gutxi ez bada, laster akordeoi orkesta sortuko da. Arazo txarrena, lokala. Jendea, 22 bat lagun, denak gazteak. Zain gaude.

Atzeratuen aldeko aurtengo bigarren jaialdia, majo. Lehenengo aldiz **Jon Antxiari** deskantsua emunda, arrasateko bi estrenatu ziren jaialdia aurkezten. Baina ez dago problemarik. Arrasaten bertan atxabaltarrak dira nagusi eta. Beste estreno bat: **Andoni Zumalde** 25 urteko morroskoak zapatuan debutatu zuen 1. erregionalean, UDAn. Berandu baina seguru.

Kirolarekin jarraituz, desafio bat. **Joseba Igartuak** bere kuadrilaren izenean bota zien desafioa **batubadeu** kuadrilakoei. 5 proba egin zituzten, pentatlon. Futbito, txirindulari igoera mendiolar, boloak, sokatira eta azeituna hezur jaurtiketa olinpikoa. Batubadeukoak irabazi. Ez, besteek galdu. Kontua da bazkari ederrarekin bukatu zutela.

Azken estrenoa. **J.J. Aretxaga** atxabaltar letraua, Aretxagazetarako kronikak idazten hasi da eskusiban. Argi ibili.

KOMIKIA



4

EGUAKOTXA

- Gaztetxean gaueko 11etan: " **Ulcera** " talde italiarraren emaldia.

5

ZAPATUA

- Gaueko 10etan J.F.K " filmea Zaraia zinemaman.

6

DOMEKA

- Arratsaldeko

4.30etan eta 7retan " **AQUEL PAIS DESCONOCIDO** " filmea Zaraia zinemaman.

- Futbol partidua: U.D.A - C.D. KILIMON.

- Gaztetxean gaueko 10etan: " **Sedición** " Talde mexikarra eta " **CLGSE** ' eta " **Ostakulo** " talde laudiotarrak izango dira kontzertua ematen

6, 7 eta 8

- Zaraia Mendi Taldearen irteera berezia.

8

MARTIZENA

- Arratsaldeko 4.30etan eta 7retan " **LA FAMILIA ADAMS** " filmea Zaraia zinemaman.

12

ZAPATUA

- Gaueko 10etan " **BATMAN 2** " filmea Zaraia zinemaman.

13

DOMEKA

- Murrukixo Mendi

Elkartearen irteera: **ARLUTZ**.

- Zaraia Mendi Taldearen Irteera: **LANDARRAITZ**.

- Arratsaldeko 4.30etan eta 7retan " **BATMAN 2** " filmea Zaraia zinemaman.



ARETXAZOKA

Etxebizitzak

- Pisu bat alokatzen da. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19

- Pisu bat alokatzen da San Miguel auzoan. Interesatuok Herriko Plaza 10-era, jantzi den-dara jo edo telefono honetara deitu: 79 59 78.

Lana

- Alemana hutsetik hasita gura nuke. Norbait erakusteko prest balego, dei dezala ilunkaretan zenbaki honetara: 79 41 94.

- O.H.O ko klase partikularrak ematen dira. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 68 18.

Salerosketak

- Durana Kalean lengo Kutzako lokala saltzen da. Interesatuok deitu telefono honetara: 41 12 65 eta 41 20 44.

- Garaje bat salgai Lausita Kalean. Tnoa: 79 99 86.

- Lehen Pagaldaixenekoa zen lokala, saltzen edo alokatzen da.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

PUBLIZITATEA

Lorenzo Gonzalez

PINTURAK

Araba ibilbidea, 24
Aretxabaleta
Tnoa: 79 65 46

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik

ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

I O S U

URDATEGIA

MITARTE, 1 eta
GORBEA, 8

AROTEGI
GENERALA



PORTASOL

ARETXABAETA
Tnoa: 79 34 84

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISENUA
APAINKETA

BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

EROSKI

Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
DURANA ETA ARALAR KALEAN
Tfno: 79 16 05

GATZAGAN

Ireki berria!!!

ZUHATZ jatetxea



Tfnoa: 79 79 39

MATIKUA

JATETXEA

(AZATZA AUZOA)

Tnoa: 79 17 68

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66

IMANOL ALTUBE


**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36
Tnoa: 79 10 60
ARETXABAETA

JANTZI DENDA

Portugaleko erropak
prezio onean

Herriko Plaza, 10



**HAIZEA
AKEITEGIA**

Mitarte Kalea, Z/G
Tnoa: 79 85 57

IRIARTE
Umeen denda




DURANA, 8
Tfnoa: 79 10 96

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tnoa: 79 23 43

LANDETA



Durana, 22
Tfnoa: 79 57 29
ARETXABAETA

**BENCOA
Mertzeria**

Durana, 13
Tfnoa: 792100
ARETXABAETA



FISKAL AURREZKI-PLANA
PLAN DE AHORRO FISCAL

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA



Gaurtik aurrera, aurrezki-zerga gutxiago ordaintzea eta errentagarritasun altua eskuratzea, den-denon esku-ra dago. Euskadiko Kutxaren Fiskal Aurrezki-Planarekin.



Lagun guztiek bere aurrezkiengatik etekinik handiena eskura dezaten bereziki diseinatua. Erabilgarritasunari uko egin gabe. Zerga gutxiago ordainduz. Eta uneko errentagarritasun garbia handienarekin. Inbertsio-fondoa delako -Caja Laboral Renta FIM-. Baina, libretan, dena argi, seguru eta erraz jarrita ikusteak daukan erosotasunaz. Informa zaitetz gure edozein sukurtsaletan. Euskadiko Kutxa. Oraingoa unerik egokiena.

**Euskadiko
Kutxa**

